

EUSKARAREN SENTSIBILIZAZIORAKO PILULA



- 'PERTSONALKI'
- UMOREA
- EUSKARAREN BITXIKERIAK

PERTSONALKI?

‘Gaztelaniazko ‘personalmente’ hitzaren euskarazko itzulpena litzateke ‘pertsonalki’ erabiltzea, baina HABEren arabera, horrela erabiltzea erdarakada bat da.

‘Pertsonalki’ erabili beharrean, pertsona-izenordainak erabiltzea da gomendatzen dena:

- **Pertsonalki** joango naiz → Ni **neu** joango naizo
- Ni pertsonalki ados nago zurekin → Ni **neu** ados nago/
bat nator zurekin

De Rerum Natura

BIDAIETAN ERE

Lehen
Hitzak
Euskaraz!!



@zaldieroa

EUSKARAREN BITXIKERIAK

Badira sekula agortzen ez diren iturriak eta badira betiere zerbait oparitzen duten testuak ere. Horietakoa da *Refranes y Sentencias* (1596). Hauxe da 410. zenbakidun errefracua: *Beizut nahi baozu, / gaur, bihar, etzi, etziluma, etzikaramu*. Erdaraz honela dio: «Haréoslo si quereys, / hoy, mañana, después de mañana». Euskaraz bost denbora-adberbio; erdaraz hiru. Zergatik, eta gatzelaniaz ez dagoelako *etzik* aurrera esaterik.

Hizkuntza gehienek ere ezin dute. Japonierak bai, ordea: *ashita* ‘bihar’, *asatte* ‘etzi’, *shiasatte* ‘etxidamu’ eta *yanoasatte* ‘etzikaramu’ dituzte, eta are *kinō* ‘atzo’, *ototoi* ‘herenegun’ eta *yanoatotoi* ‘herenegunaren aurreko eguna’, hots, guk baino bat gehiago.

Ez dago erraz asmatzerik zer dela eta definitu zituzten hain zorrotz orainaren atze-aurreak noizbaiteko euskal eta japoniar hitzunek, baina kontua da denboraren ulerkera ez dela inolaz ere unibertsala —edo *guziakikoa*, Larramendik txukun zioenez— eta, beraz, horixe erakusten digute euskal hitz horiek, modu apalean bada ere.



Etxidamu

Blanca Urgell